

DK202607 DEKRETUA
KATILUZAR GURASO ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ONARTZEA

Gaurko datarekin Auzo alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Ereñotzun, 2026ko otsailaren 20an

Katiluzar Guraso Elkartearen helburua da, hezkuntza eskaintza indartzeko burutzen dituen hainbat jarduera ezberdin aurrera eramatea.

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren xedea, besteen artean, jardun hauek sustatzea ere bada. Interes orokorrekoa da elkarteari diru-laguntza ematea. Elkartea, irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta xede hori egiten diharduen elkarte bakarra da.

2026eko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Katiluzar Guraso Elkartearen aldeko diru-laguntza izenduna jasotzen da.

Diru-laguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzaren hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau:

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Katiluzar Guraso Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 1.500 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren hirugarren klausulan xedatutakoa betez, partida honen kargura: 01.481.01.334.00 2026 Dirulaguntza zuzenak. AD-29/2026.



Hirugarrena.- Ordainketa, hitzarmenaren laugarren klausulan jasota bezala egitea: diru-laguntzaren %80 (1.200€) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %20 (300€) justifikazioa aurkeztean.

Auzo alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, udal idazkariordearen delegatua naizen honek ziurtatu dut.

Auzo Alkatea

Fede ematen dut:
Udal idazkariordearen delegatua